

Kanalak

Erabakigarria da bezeroengana bezeroek eurek nahi duten moduan iristeko kanalen konbinazio zuzena aurkitzea merkatura balio-proposamen bat eraman eta arrakasta lortzeko.

Balorezko proposamena bezeroengana iritsi dadin, gure enpresa nola komunikatuko den eta bere merkatu-segmentuetaraino nola iritsiko den zehaztuko dugu.

Alde batetik, aplikazioaren erabiltzaileak dira bezero batzuk. Hauek aplikazioa “play storen” eta “app storen” dohainik deskargatzeko aukera izango dute, horregatik, **kanal elkartua** izango da bezeroarengana beste enpresa baten bidez iritsiko garelako. Gainera, hasiera batean gure aplikazioa ezagutzera emateko, hau publizitatuko dugu.

Beste aldetik, gure aplikazioan publizitatuko diren supermerkatu eta jatetxeekin **kanal propioa** erabiliko dugu. Bezero hauekin komunikatzeko sortuko dugun korreo elektronikoa batetik edo telefonoz komunikatuko baikara. Gainera, hasiera batean gure proiektua azaltzeko, beraiekin bilerak edukiko ditugu.

Kanal elkartuen onurei dagokienez, marjina eskasagoa eskaintzen badute ere, gure kanal propioak erabiltzean baino bezero kopuru askoz handiagoarengana iristea ahalbidetzen digute, eta kanal propioek tratatu pertsonalizatu eta zuzenago bat edukitzea.